


Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria ohikoena da 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak [Gazteen Euskal Behatokiari](#) emandako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko 1.045 emakumek salaketak jarri zituzten emakumeen kontrako indarkeriagatik 2015ean. Haietariko % 73,4k (767 emakume) bikotekide edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria salatu zuten, % 16k (167 emakume gazte) familiaren barruko indarkeria eta beste % 10,6k, (111 emakume) sexu-askatasunaren aurkako indarkeria.

2014 eta 2015 artean % 4,5eko murrizketa egon da bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriaren salaketa kopuruan; sexu-askatasunaren aurkako indarkerian murrizketa handiagoa gertatu da (% 10,5). Ostera, familia barruan gertatutako indarkeriak, bikotea edo bikotekidea kenduta, gora egin du % 1,8.



Sexu-erasoen biktima izan diren emakume gazteen kopurua lurralde historiko edo adin tarte bakoitzeko jakin nahi baduzu [Gazteen Euskal Behatokiako Estatistikak](#) kontsultatu ditzakezu, "**Balioak eta Jarrerak**" atala, "**Emakumeenganako indarkeria**" azpiatala.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) **Beldur Barik** egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea izeneko udal-sarearen baitan.

Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardurakidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta.

Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera <http://www.beldurbarik.org/> edo beren [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletara.